# Trantsizio Digital Programa 2023

**Helburua (1. oinarria)**

Bizkaiko enpresek oinarrizko zein aurreratukorekin lerrokatuta dauden digitalizazio proiektuei laguntzea, enpresa horien lehiakortasuna hobetzeko eta aztarna ekologikoa murrizteko.

**Erakunde onuradunak (3. oinarria)**

Berezko nortasun juridikoa duten enpresak, honako baldintza hauek betetzen dituztenak:
- Egoitza soziala eta fiskala Bizkaian dutenak, eta Bizkaian ekoizpen-zentro bat edo balio erantsi handiko zentro bat dutenak.
- 5-250 langile arteko plantilla (lanaldi osoko baliokideetan).

Sektore hauetakoren baten barne egon behar da proiektuari zuzenean lotutako enpresako jarduera : industria, eraikuntza, garraioa, industriarekin lotutako zerbitzuak, turismoa eta handizkako merkataritza (dekretuaren eranskineko epigrafeen arabera).

**Diruz lagun daitekeen egitatea (4. eta 7. oinarriak)**

1. ildoa – enpresan hobetzeko edo berritzeko proiektuak, oinarrizko digitalizazioaren bidez, baldin eta balioa sortzeko prozesuei eragiten badiete. Elektronikaren, Informazioaren eta Telekomunikazioen Teknologia hauetakoren bat ezartzea, besteak beste: merkataritza elektronikoa, enpresaren kudeaketa aurreratuko sistemak, ekoizpen-prozesuak kudeatzeko sistemak, logistika kudeatzeko sistemak, produktuaren bizi-zikloaren kudeaketa, prozesu industrialen automatizazioa, Prozesu operatiboetako seinaleak eta datuak integratzea enpresan, zibersegurtasuna.

2. ildoa – enpresan hobetzeko edo berritzeko proiektuak, digitalizazio aurreratuaren bidez, baldin eta balioa sortzeko prozesuei, produktuei/zerbitzuei edo negozio ereduari eragiten badiete: Elektronikaren, Informazioaren eta Telekomunikazioen Teknologia sofistikatuak aplikatzea enpresaren prozesuetan. Aplikatze horrek automatizazioa eta datu-trukea ahalbidetzen du eta, ondorioz, hobekuntzak lortzen dituzte enpresaren balioa sortzeko eremuren batean

**Diruz lagun daitezkeen gastuak (5. eta 8., oinarriak)**

- Proiektuari zuzenean lotutako kanpoko gastuak, diruz lagundu ezin direnak izan ezik.
- Proiektura bideratutako langileen barne-gastuak.
- (1. ildoa). Hardwarean eta softwarean inbertitzea diruz lagundu ezin diren gastutzat jotakoak izan ezik.
- (2. ildoa). Inbertsioak Kontabilitate Plan Orokorraren 206., 212., 213., 215. eta 217. kategorietan.
- (Bakarrik plan bat badauka). Eragile adituen laguntza-gastuak, proiektuaren kudeaketari buruzko aholkularitzarako.
- (Bakarrik plan bat badauka). Langile teknologoak kontratatzeko gastuak.

**Laguntzen zenbatekoa (7. eta 9. oinarriak)**

| | Planik gabe | | | Planarekin | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Dirulaguntzaren % | Gehieneko dirulaguntza | | Dirulaguntzaren % | Gehieneko dirulaguntza | |
| | | 1. ildoa | 2. ildoa | | 1. ildoa | 2. ildoa |
| Barne-gastua | %50 | 30.000 € (barne-gastua 6.000 €) | 75.000 € (barne-gastua 15.000 €) | %70 | 50.000 € (barne-gastua 10.000 €) | 100.000 € (barne-gastua 20.000 €) |
| Kanpo-gastua | %50 | | | %70 | | |
| Inbertsioa | %10 | | | %15 | | |
| Laguntza | %0 | 0 € | 0 € | %80 | 10.000 € | 10.000 € |
| Teknologoa kontratatzea | %0 | 0 € | 0 € | %50 | 30.000 € | 30.000 € |

- 1. ildoan ez da 3.000 eurotik beherako laguntzarik emango eta 2. ildoetan gutxieneko dirulaguntza 6.000 eurokoa izango da

**Emakidaren araudia eta araubidea (19. oinarria)**

52/2024 Foru Dekretua, maiatzaren 9koa (B.A.O., 91 zk., 2024ko maiatzaren 13koa)

1. ildoa: Lehia askeko araubidean ematen da (banaka ematen da, eskabideak osorik eta zuzen beteta jaso diren hurrenkeraren arabera).

2. ildoa: Norgehiagoka

**Epeak (28. eta 16. Oinarriak)**

Proiektuak gauzatzeko epeak:
- 1. eta 2. ildoak: 2023ko urtarrilak 1 – 2025ko ekainak 30 (biak barne)

Eskabideak aurkezteko epea:
- 1. ildoa: 2024ko maiatzaren 20tik uztailaren 26ko 13:30ak arte.
- 2. ildoa: 2024ko maiatzaren 20tik ekainaren 7ko 13:30ak arte

Ekonomia Sustatzeko Sailaren Bulego Birtualaren bidez (http://www.bizkaia.eus/sustapena-oficinavirtual). Horretarako, sinadura elektronikoa izan beharko du (Izenpe, ONA, NAN elektronikoa, FEA,…), Bizkaibai zerbitzuan alta emanda egon beharko du edo B@kQ ziurtagiri elektronikoaren bidez sartu ahal izango da; Ziurtagiri hori Orueta Apezpikua kaleko gure bulegoetan eskatu ahal izango da.